

Berdintasun Zerbitzua		Getxoko Udala
Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BILERA		

Bileraren datuak:

Eguna: 2016-02-18 Lekua: Santa Klararen Jauregia. Ordua: 17:00 -19:45

Bertaratutakoak:

Gizatiar: Marisa Pedrero
Mujeres con Voz: Luciana Davies
Eskuz-Esku: Isabel Pérez
Roda: Clara Lorenzo
EH Bildu: Arantza Gutierrez
Ciudadanos-Herritarrak: Carlos Escalera
EAJ-PNV: Elena Coria Yanguas
GUK: Paula Amieva
Udal Talde Sozialista: Josefina García
Talde Popularra: Susana De Cos
ELA: Elvira Lemona
Berritzegune: Ana Sofia Gutierrez Arnaiz
Kontseiluburua: Keltse Eiguren
Idazkaria: Idoia Eizmendi

Bertaratu ezina adierazi du

Bilgune Feminista

Aztergai-zerrenda

- Aurreko akta onartzea
- Kontseiluaren prestakuntza
- M 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna
- Etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriako kasuen aurrean eman beharreko erantzun publikoaren protokoloa
- Galde-eskeak

Ciudadanos ordezkatzeko duen pertsona Kontseilu honetara estreinako aldiz etorri denez gero, batzarra hasi baino lehen aurkezpen txanda egin da.

Aurreko akta onartzea

Aurreko batzarreko akta onartu da.

Kontseiluaren prestakuntza

Berdintasun teknikariak orri bat banatu du Kontseiluan berdintasun-prestakuntza emateko proposatzen diren edukiekin. Azaldu du hiruna orduko bi saio emango direla pentsatuz prestatu direla; beraz, ordutegia murriztea erabakitzen bada edukietakoren bat ere murriztu beharko litzateke. Erabaki da prestakuntzak 6 orduko iraupena izango duela, eta apirilaren 7an eta 14an egitea erabaki da, ahal baldin bada, Billamonteko Kultur Etxean.¹

M 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna

Martxoaren 8ko agendaren errepeaso egin da eta gogora ekarri da adostutako gaia erantzunkidetasuna dela.

Berritzegunearen ordezkariak jakitera eman du ikastetxeei proposatu dietela argazkiak, horma-irudiak eta abarrekoak egitea martxoaren 8aren inguruan, eta material horiek Billamontera eramatera animatu gura dituztela, erantzunkidetasunari buruzko hitzaldiaren egunean horma-irudi bat egiteko eta horrela gurasoen presentzia sustatzeko.

Aurrera ateratzen bada Berdintasun Zerbitzuari jakinaraziko dio.²

Adierazpen instituzionalari buruz berdintasun zinegotziak esan du, betiko moduan, Bozera maileen Batzarrean eramango dela EUDELen adierazpenaren proposamena, aurrean oraindik ere jaso ez dena. Beste batzuetan bezala, kontseiluari emango zaio, jaso bezain azkar, ekarpenak egin ahal izateko.

Bozera maileen Batzarra martxoaren 8rako deituko da, eta gero osoko bilkurari jakinaraziko zaio.

¹ Batzarra egin ondoren ikusi da prestakuntza ematea proposatu zaion enpresak ezin duela egun horietan egin; beraz, kontseiluan dauden pertsonen galdetu ondoren datak apirilaren 5era eta 12ra aldatu dira.

² Azkenean, erakusketa bat egin da eta martxoaren 11tik 18ra ikusgai egongo da Faturan.

Etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriako kasuen aurrean eman beharreko erantzun publikoaren protokoloa

Berdintasun zinegotziak jakinarazi du Ciudadanos eta GUKek egindako proposamenak soilik iritsi direla ezarritako epean. Horregatik, beranduago heldu direnak (EH Bildu eta Mujeres Con Voz elkarteak) ezin izan dira sistematizatu. Horrela, metodologia gisa protokoloa berrikustea eta ekarpenak dauden puntuetan geratzea proposatu du.

Berrikuspenean hainbat eztabaida eta zalantza batzuk sortu dira, eta argitu egin dira.

Eztabaidak zenbait punturen ingurukoak dira:

Erasoaren larritasuna

- Galdetu da zerrenda itxi bat egin beharko litzatekeen ala horrek kasu batzuk kanpoan uzteko arriskua dakarren.
- Biktimaren pertzepzioak larritasuna zehazten lagundu ahal dion ala adierazle "fidagarria" ez den
- Alarma sozialaren balioa adierazle gisa. Izan ere, oso larriak izan arren alarma sozialik sortzen ez duten kasuak egon daitezke.

Elkarteen papera

- Eztabaidatu da protokoloa aktibatzeke beharrezkoa ote den salaketa maila instituzionalean egitea (polizia-etxean, osasun zentro batean, gizarte zerbitzuetan edo epaitegian), edo balio bera daukan salaketa soziala egitea elkarte baten bidez (adibidez, etxeko langileek sexu eraso edo abusuengatik egiten dituzten salaketak, edo jaietan gertatzen diren erasoengatik jai batzordean egiten diren salaketak etab).
- Badago proposamen bat: elkarteek Bozeramaileen Batzarrean ere parte hartzea. Aitzitik, argitu da adierazpenarekin bat egin dezaketela baina ez Batzarrean parte hartu, izaera instituzionala baitauka.
- Planteatu da asteburuan erasoren bat gertatzen bada, elkarteek erreakzionatzeko gaitasun gehiago daukatenez gero, elkarretaratze bat deitu ahal duten, Bozeramaileen Batzarrari itxaron gabe. Berdintasun zinegotziak erantzun du Bozeramaileen Batzarrari dei egin ahalko zitzaiola astebururako, baina ez du beharrezkotzat jotzen, lehendabizi datuak kontrastatu behar direlako, dokumentuan jasotzen denez. Nolanahi ere gogora ekarri du elkarteek egokien deritzen moduan jokatzeko legitimitatea daukatela.

Biktimaren baimena adierazpen instituzionaletarako eta salaketa-elkarretaratzeetarako

- Iritzi ezberdinak daude gai honetan: Ciudadanos-ek esan du ahal den neurrian adierazpen instituzionalak eta gaitzespen-elkarretaratzeak biktimaren adostasunarekin egin behar direla. Baina gertaera publikoa eta jakina denean, uste dute herri-erantzuna beharrezkoa dela beti. EAJk adierazi du euren ustez biktimaren baimena egon behar dela beti. EH Bilduk uste du beti salatu behar dela, betiere biktimaren nortasuna ezkutatuz. Guk-ek biktimaren erabakia kasu guztietan errespetatzea proposatu du, elkarretaratzea edo manifestazioa deitzen denean; baina aldi berean adierazi dute zalantzak dauzkatela komunikabideetan dauden kasuei buruz: horrelakoetan ez luke ulertuko elkarretaratzerik ez deitzea. Emakume elkarteetan eta ordezkaturako beste eremu batzuen ordezkariak zalantzak daukate gaiari buruz.

Bestalde, dokumentuan zenbait aldaketa egitea adostu da:

- Heriotzaren kasuko protokoloaren aipamenean, dokumentuaren izen osoa erabili behar da, argi gera dadin "etxeko tratu txarrak" terminoa dokumentu horren barruan dagoela.
- Kasuari buruzko informazioa biltzeko premiazko batzarrean, Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak proposatuta, erabaki da ez dela beharrezkoa Gizarte Zerbitzuen presentzia, une horretan ezin izango lukeelako ekarpenik egin, oso kasu zehatzetan izan ezik. Horrela, hurrengo puntura joango ginateke.
- EH Bilduk proposatuta, indarkeria larriko gertaerak udal sail batekin zerikusirik badu, zinegotziak edo hark eskuordetzen duen pertsonak batzarrean parte hartu ahal izango du.
- Argitu behar da herritarrei 19:00ak eta 20:00ak artean dei egitea proposatzen dela, eta ez eguerdian, zirriborroan oker ageri zenez.
- Adierazpen instituzionala egiteko orduan kontuan izan behar diren gomendioetan, indarkeriaren erantzukizuna hura erabiltzen duenari jasanarazteari buruzko puntuan, erantsiko da biktimari errua leporatzea saihestu behar dela.

Berdintasun teknikariak proposatu du hurrengo batzarrean eztabaidatzen jarraitzea bere ustez oraindik ere dokumentua ixteko moduan biriEH Bildu ez diren puntuak.

Berdintasun zinegotziak proposatuta, erabaki da gai guztiak sakon eztabaidatu direla, eta Kontseiluaren hurrengo batzarrera eramaten den dokumentuan gaur

egin diren aldaketa-proposamen guztiak sartuko direla, kontuan izateko. Eztabaida, ordea, ez da errepikatuko.

Galde-eskeak

Ez dago galderarik ez eskaerarik. Beraz, batzarra amaitutzat eman da. Hurrengo batzarra maiatzaren 5ean, osteguna, egingo da.